

Donostiako Udalak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hitzarmena sinatu dute

- Martin Ibabek EGKrekin sinatutako akordioaren garrantzia azpimarratu du, gazteen iritzia helaraziko dielako
- Olabek 2017an egindako #GazteOlinpiadak eta #GukEzetz! Kanpaina azpimarratu ditu

Donostian, 2017ko azaroaren 24an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Donostiako Udaleko Gazteria sailak sinatutako lankidetzaren hitzarmena sinatu dute gaur goizean. gu gaur hedabideen aurrean egindako prentsurrekoan. Akordioa aurkezteko ekitaldian Martin Iabek, Kiroletako eta Gazteriako, Herri Segurtasuneko eta Herri Babeseko zinegotzia, eta Maialen Olabe, EGK-ko presidentea izan dira.

Ibabek adierazi du hitzarmen hau Gazteria Sailaren 2017-2020 tarterako Plan Estrategikoan kokatzen dela. Zinegotziaren hitzetan akordioa oso garrantzitsua da, gainerako administrazioen moduan, gazteen iritzia jasotzeko interloktore zuzena izango duelako horrela Donostiako Udalak. Era berean, azpimarratu du “gero eta gizarte anitzago batetara” goazela, eta “bizitzako alorrak ireki eta konplexuagoak direla”.

Kiroletako eta Gazteriako, Herri Segurtasuneko eta Herri Babeseko zinegotzia

Olabek nabarmendu du EGKrentzat hitzarmena oso garrantzitsua dela. “Elkarlana eta zeharkakotasuna sustatuko du eta aukera emango digu gazteriaren ahotsa Donostiako Udalera eramateko eta sortzen diren proiektuak gazte ikuspegiarekin landutakoak izateko”.

“Politika publikoetan gazteen eta genero-ikuspegia txertatu behar da”

Era berean, EGK-ko presidentek gogoratu du plataformaren helburua politika publikoetan “genero-ikuspegia txertatzea” dela, eta fase guztietan “gazteen ahotsa eta presentzia bermatzea”. Azkenik, jada 2017an elkarlanean egindako ekimenak azpimarratu ditu Olabek. Besteak beste, Antiguako frontoian garatutako #GazteOlinpiadak proiektua edo Indarkeria Matxistaren aurka aurrera eramandako #GukEzetz! kanpaina.

2018ra begira, EGK-ko presidentek adierazi du “Donostiako Udalarekin elkarlanean aritzea” espero duela, “gazteen iritzia, ideia, proposamen eta proiektuak helaraziz eta politika publikoetan kontuan izan ditzaten aldarrikatuz”.